





OBJETIVOS DE DESARROLLO SOSTENIBLE


GAZTEAK




Kahoot



Jarduerak




Ekosistemak




Baso-soiltzea

HAURRAK



Kahoot



Jarduerak



Ekosistemak



Kimu



Lurra bizitza da Zaindu dezagun!



02

DESERTIFIKAZIOA

01

BASOAK
BABESTEA



03

BIOANIZTASUNA
GALTZEA


04

LURRA
BABESTEN DUTEN
PERTSONAK ETA
EKIMENAK




05

MUNDU OSOAN
LURRA ZAINZEKO
EKIMEN IRAUNKOR
GEHIAGO



01 | BASOAK BABESTEIA

2010 - 2015




-3,3 M
Baso-hektarea



Emakumeak, pobrezia-egoe-
ran daudenak eta landa-ere-
muetan bizi direnak batez ere,
basoen beharra dute erre-
gaiak, bazka eta elikagaiak
lortzeko. Baso-soiltzearen
ondorioz, pertsona batzuek
ordu gehiago behar dituzte
egunero premia horiei erant-
zuteko distantzia luzeak egite-
ko





Honako animalia hauen
habitata da basoa:



Munduko azaleraren
ia % 31 basoz
estalita dago

Babestutako eremuetan
dauden basoen azalera
handitu egin zen edo
egonkor mantendu zen






ZERGATIK DIRA GARRANTZITSUAK BASOAK?




Baso batek azalera bereko
beste edozein labore motak
baino bi edo hiru aldiz
oxigeno gehiago sortzen du.



Zuhaitzek klima
erregulatzen dute, eta
atmosferako karbonoa
murrizten dute.




Basoek edateko urez
hornitzen dituzte munduko
hiri handien % 33
baino gehiago.







02|

BASO-SOILTZEA Zer da?



Baso-soiltzea
baso-azalera suntsitzea
edo agortzea da. Ia beti
gizakiaren ekintzak
eragiten du,
zuhaitz-mozketa handia
edo kontrolik gabea
dagoenean gertatzen
baita.



02|

ONDORIOAK

Eragina izugarria da,
bioaniztasuna mehatxatzen du,
eta giza populazioak ere
arriskuan jartzen ditu.
Desertifikazioak haien
bizi-baldintzak degradatzen
ditu.

Baso-soiltzea

Animalia-espezieen galera

Degradazioa

Temperatura altuak

Degradatutako
lurren **%20** inguru
laborantza-lurrak dira.



Uholdeak. Arazo
larria da eremu
desertifikatuetan,
landaretzarik
gabeko lurzoruk
zuhaitzak
dituenak baino ur
gutxiago
xurgatzen baitu.

Ur-ekoizpenari
ere eragingo
lioke, landareen
funtzioetako bat
ura atxikitzea
baita, gero
berriro lurrundu
eta hodeiak
osatzeke.

Animalia eta
landare-espezieen
galera dakar,
bai eta
ekoizpen-lurzoruk
emankorrena eta
ekosistemena
ere.

Klima-aldaketar
en ondorioak
areagotu egingo
dira, eta
muturreko
gertaera
klimatikoak
areagotuko dira.

Bizi-baldintzen
degradazioa eta
pobrezia
areagotzea
eragingo du.
Garapen
iraunkorrean
eragina izango du.

Desorekak daude
baliabide
naturalak
eskuratzeke
orduan.

Gaixotasun
zoonotikoak
agertzeko
arriskua
handituko da,
hala nola
COVID-19a.





DESERTIFIKAZIOA




Nekazaritzara zuzendutako lurraren % 52k lurzoruaren degradazioaren ondoriozko eragin ertaina edo larria jasaten du.



Lehortearen eta desertifikazioaren ondorioz, 12 milioi hektarea galtzen dira urtero. Urtebetean, 20 milioi tona hazi landatu zitezkeen.


Pobretutako pertsonen % 74ri zuzenean eragiten die lurraren degradazioak mundu mailan.

2600 M pertsona nekazaritzaren mende daude bizirauteko.






03| BIOANIZTASUNA GALTZEA



Ezagutzen ditugun
animalien 8.300
arrazetatik

• % 22 desagertzeko zorian dago.



Arrainek animalia-proteinen
% 20 eskaintzen diete
3.000 milioi pertsonari.

Arroza, artoa eta garia
dira elikagaien bidez
jasotzen dugun energiaren %60



Giza dietaren % 80 baino
gehiago landareek osatzen
dute.



Garapen bidean diren
herrialdeetako
landa-eremuetan bizi diren
pertsonek % 80, gutxi
gorabehera, landareetan
oinarritutako sendagai
tradizionalen mende daude
oinarritzko
osasun-arretarako.



Zer da BIOANIZTASUNA?


Bioaniztasuna galtzeak aniztasun biologikoa murriztea edo desagertzea esan nahi du, hau da, gure planetan bizi diren izaki bizidunen aniztasuna gutxitzea edo desagertzea.

Ondorioak:

Espezieen desagertzea, Gizakia mehatxatuta dago, bioaniztasunaren galerak eta horrek uretan eta lurzoruan dituen ondorioek gizakiaren ongizateari eragiten baitiote, batez ere, elikadurari dagokionez.

Izurriteen ugaritzea: ekosistemetako desorekek pertsoneri eragiten dieten gaixotasunen agerpena bultzatzen du, baita uztak kaltetzen dituzten izurriteak ere.

“Etorkizunerako gure txertorik onena natura eta bioaniztasuna babestea da, eta horixe da aurki dezakegun bizi-asegururik onena; izan ere, ekosistemak kaltetuz gero, murriztu egiten da basoek eta ozeanoek CO2a xurgatzeko duten ahalmena”.



| Zer egin dezakegu?

Bioaniztasuna ezagutzea da hura zaintzeko lehen urratsa. Bioaniztasuna ez da pertsonekin zerikusirik ez duen zerbait, kontrakoa baizik: funtsezkoa da gure planetan bizitza egon dadin.

Baliabide naturalen gehiegizko ustiapena saihestea: hondakin-urak tratatzeko programak ezartzea, landaketek ur gutxiago behar izateko egin beharrekoak egitea, CO₂-rik isurtzen ez duten energiak hobestea, ozono-geruza kaltetzen duten aerosolak saihestea, etab.


Kutsadura murriztea: autoetan katalizatzaileak erabiliz, garraio publikoa erregulartasunez erabiliz, ongarri eta pestizida gehiegi ez erabiliz, energetikoki eraginkorragoak diren eraikinak eraikiz, etab.

● Produktu jasangarriak kontsumitzea.


● Naturan arduraz jokatzeta.

● Bioaniztasunaren aurkako jarduerak salatzea.

● Erakunde protekzionistek eta naturaren aldeko kanpainei laguntzea.



Lorem ipsum





04 | LURRA BABESTEN DUTEN PERTSONAK ETA EKIMENAK

Constantino Auccha Chutas
(Cusco, Peru)

Biologoa da, eta azken 30 urteak naturaren defentsan eman ditu.

“Lurrak ez du bilera, lantegi edo ikerketa gehiago behar, ekintza gehiago baizik”

Purnima Devi Barman
(Assam, India)

Biologian doktorea da, eta bere ibilbidearen zati handi bat desagertzeko arriskuan dagoen zikoina laguntzaile handia salbatzera zuzendu du, desagertzeko arriskuan baitago.

“Lehengoratzeko ekologikoak izugarritzko garrantzia du gure bioaniztasuna eta gure burua salbatzeko. Pertsona guztiak, espezie guztiak, bizi-hari bakar batekin lotuta gaude.”

Sheila Watt-Cloutier
(Kuuujuaq, Kanada)


Inuiten herriko lider errespetatua da, eta ingurumenaren, klima-aldaketaren eta giza eskubideen defendatzailea. 2007an, Bakearen Nobel Sarirako izendatu zuten.

“Historian lehen aldiz, nire komunitateak aire girotuko tresnak erabili ditu. Pentsa, aire girotua Artikoan”

Souhad Azennoud
(Kissane, Marruecos)

Biologoa da, nekazari eta erlezain aditua. Ariaf Kissane nekazaritza-kooperatibaren sortzailea eta agroekologiaren aitzindari aitortua.

“Bizi garen mendiko herrixkan, klima-aldaketaren ondorioak ikusten ditugu. Jendea jabetzen da, eta honela esaten dute: ‘lehen, gariaren galburuak altuagoak ziren, eta labore horrek ez zuen fumigatzerik behar’”



05 | MUNDU OSOAN LURRA ZAINTEKO HIRU EKIMEN IRAUNKOR

UNCDD Land Heroes, lurraren kontserbazioaren eta leheneratzearen bidez klima-aldaketaren aurkako proiektu asko zabaltzen lagundu zuen kanpaina.



| Arenciel

Irabazi asmorik gabeko talde ekologista aitzindaria Libanon; boluntarioek zuzendutako erakunde honek gauza guztiak (osasun-hondakinetatik arropara) birziklatzeko programak abiarazi ditu 1985ean sortu zenetik.

| Laramateko emakume indigenak

Peruko emakume indigenek klima-aldaketari aurre egiten diote, eta beren ekonomia bultzatzen dute; antzinako laborantza-teknikak berreskuratzen dituzte, NBE Emakumeak erakundeko Genero Berdintasunerako Funtzaren laguntzarekin.


 Peru

 Mali

| Landa-eremuko emakumeak Malin

Klima aintzat hartzen duen nekazaritza adimentsuak landa-eremuko emakumeen sostengua hobetzen du Malin.

 Líbano



BIDEO 1:

NON BIZI DA KIMU?



MATERIALAK:

[BIDEO](#)

Orrialdeak
Margoak

DENBORA:

30-40 minutu

DESKRIBAPENA:

[Bideoaren](#) aurkezpena ikasgelan:

1. Bideoa ikusi ondoren, ikasleekin hausnarketa-erronda bat egingo da, eta galdera hauek egin dakizkieke:

- **Zerk eman dizue arreta gehien bideoan?**
- **Kimuren egoera sarritan gertatzen dela uste duzue?**
- **Nortzuk izan daitezke bi hankako animaliak?**
- **Zergatik uste duzue basoa hiltzen dutela?**

3. Gogoeta egin ondoren, ikasleak Kimuren etxea edo bizi den lekua margotzera animatzen ditugu.

4. Eta, azkenik, baso batean izandako esperientzia zirraragarriren bat konta eta parteka dezaten eskatuko diegu; izan daiteke ikastetxearekin edo norbere familiarekin egindako txango bat, basoan zeharreko ibilaldi bat non animaliairen bat ikusi zuten, edo perretxiko bila joandako egun bat. Azal ezazu zer sentitu zenuen, zer gustatu ote zitzaizun eta zein errepikatuko zenukeen berrir; eta ezagutzen dituzun basoen artean zein da gehien gustatzen zaizuna.



BIDEO 2:

ASMATU NATURARI DAGOELA



MATERIALAK:

BIDEO

Kartulinak

Naturaren elementuak
eta hondakinak

DENBORA:

15-30 minutu

DESKRIBAPENA:

Saioaren aurretik, ikasleei esango zaiei etxetik ekartzeko euren ustetan naturatik datozen gauzak eta naturatik ez datozenak, ikasgelan sailkatu ahal izateko.

1. [Bideoaren](#) aurkezpena.

2. Bideoa ikusi ondoren, ekarri dituzten materialak azalduko dituzte, eta klasearen erdian edo eremu irisgarri batean kartulina bat jarrita, materialak sailkatu egingo dituzte naturatik datozenak eta ez datozenak. Horretarako, lehenagotik jarrita egon behar dute esaldi horiek kartulinan.

3. Azkenik, galdetuko zaie:

- Zergatik uste duzue gauza hauek naturakoak direla?
- Zergatik uste duzue beste hauek ez direla?
- Kaletik edo parketik zoaztenean naturakoak ez diren gauza asko ikusten dituzue naturan?
- Zergatik uste duzue horrelakoak gertatzen direla?



BIDEO 1:

BERRESKURA DITZAGUN EKOSISTEMAK



MATERIALAK:

[BIDEO](#)

Arzularen / Paperak

DENBORA:

30 minutu

DESKRIBAPENA:

Ikasgela lau taldetan banatuko da:

1. Enpresa eta merkatua.
2. Irabazi-asmorik gabeko eta giza eskubideen aldeko erakundeak.
3. Ingurumen-erakundeak eta animalien babes-erakundeak.
4. Osasunerako ikerketa zientifiko eta medikoa.
5. Hiriko herritarrak.

Talde bakoitzak ordezkatzeko duen alderdi interesdunen pentsamoldean sartu beharko du, eta, ikuspegi horrekin, ikasgelak (taldeek) "Berreskuratu ditzagun ekosistemak" [bideoa](#) ikusiko du.

Bideoa ikusi ondoren, talde bakoitzak honako gai hauei buruzko gogoeta egingo du bere taldekideekin:

1. Zer iritzi du ordezkatzeko dugun taldeak biodibertsitatearen babesari buruz? Lehenetsunak al da guretzat?
2. Zer iritzi du gure taldeak baso-soiltze edo deforestazioari buruz? Nola eragiten die deforestazioak gure jarduerari? Edo gure jarduerak nola probokatu dute baso-soiltzea?
3. Gure taldearen ikuspuntutik, zein ekintza egin edo sustatu nahi ditugu epe laburrean baso-soiltzearen aurka? Eta epe luzean?

Ondoren, ikastaldea osoko bilkurara itzuliko da, eta taldeek banakako puntuak eztabaidatuko dituzte, eta puntu bakoitzarentzako lehenetsunak eta ekintzak partekatuko.

Eztabaidaren amaieran, ikasleei dei egingo zaie hausnar dezaten ea beren hirian edo auzoan biodibertsitateaz arduratzen direnen tokiko ekimenik ba ote dagoen eta ea gure interesekoak ote diren.



BIDEO 2:

DESERTIFIKAZIOA



MATERIALAK:

[BIDEO](#)

Arzularen / Paperak

DENBORA:

30 minutu

DESKRIBAPENA:

1. Orain, taldeak aldatu egingo dira: lehengo “Enpresa eta merkatua” taldeak “Osasunerako ikerketa zientifikoa eta medikoa” taldea ordezkatzuko du, etab.
2. Talde bakoitzak ordezkatzeko dituen alderdi interesdunen pentsamoldean sartu beharko du, eta, ikuspegi horrekin, klaseak (taldeak) “Desertifikazioa” [bideoa](#) ikusiko du.
 - Bideoa ikusi ondoren, talde bakoitzak honako gai hauei buruzko gogoeta egingo du bere taldekideekin:
 - Zer iritzi du gure taldeak desertifikazioaz? Nola eragiten die desertifikazioak gure jardueri? Edo gure jarduerak nola probokatu dute desertifikazioa?
 - Gure taldearen ikuspuntutik, zein ekintza egin edo sustatu nahi ditugu epe laburrean desertifikazioaren aurka? Eta epe luzera?
3. Ondoren, ikastaldea osoko bilkurara itzulikoda, eta taldeek banakako puntuak eztabaidatuko dituzte, eta puntu bakoitzarentzako lehentasunak eta ekintzak partekatuko.
4. Eztabaidaren amaieran, ikasleei dei egingo zaie hausnar dezaten ea beren hirian edo auzoan desertifikazioaz arduratzen direnen tokiko ekimenik ba ote dagoen eta ea gure interesekoak ote diren.



ELKARREN ARTEKO HAUSNARKETA

Taldeetako murgiltze-jardueren ondoren, klasea osoko bilkurara itzultzen da, bakoitzak berriro bere burua bakarrik ordezkatzuz.

Ariketa hau egin ondoren nola sentitzen diren partekatzera gonbidatzen zaie ikasleei.

Zer deritzozu ikusi dituzun bideoei? Zer zenekien aurretik? Zer ez zenekien?

Zer deritzozu taldeetan sortu diren gogoetei? Eta abian jarri beharreko ekintzez? Ba al dira jorratu ez diren beste batzuk?

Zure ustez, zer egin dezakezu gizabanako eta klase gisa gai horiei aurre egiteko eta erantzuteko? Bideoko istorio edo proiektuez gain, ba al daude inspiratzen zaituzten beste istorio edo proiektuak?

